

SAINT PALAIS DONAPALEU

HERRIKO ALDIZKARIA / BULLETIN MUNICIPAL

Bonne
année
2024
Urte
berri on



PHOTO: JOËLLE SUSPERREGUI


H I V E R / N E G U A / 2 0 2 3 - 2 4

BULLETIN MUNICIPAL HERRIKO ALDIZKARIA HIVER / NEGUA / 2023-24

SOMMAIRE AURKIBIDEA

- | | |
|--|--|
| 3 Etat civil.
Egoera zibila. | 16 Gibraltar en fête.
Xibaltarreko bestak. |
| 4 Le mot du Maire.
Auzapezaren hitza. | 17 Le conseil municipal des jeunes de Saint-Palais.
Donapaleuko gazteen herriko kontseilua. |
| 6 Une OPAH-RU à venir sur Saint-Palais.
Bizilekuak hobetzeko eta
hiria berritzeko plana Donapaleun. | 18 Le centre communal d'action sociale (CCAS).
Gizarte ekintzarako udal zentroa (GEUZ). |
| 8 Le centre hospitalier de Saint-Palais
poursuit son développement.
Donapaleuko ospitaleak
garatzen segitzen du. | 20 Tri à la source des biodéchets : tous concernés !
Bio-hondakinen bereizketa: denen esku ! |
| 10 Tous citoyens, tous sauveteurs.
Denak herritar, denak sokorritzaile. | 21 Le compostage sous toutes ses formes !
Konpostaketa era ezberdin guzietan! |
| 11 Les consultations au centre hospitalier de
Saint-Palais.
Donapaleuko ospitaleko espezialitateak. | 22 « J'allume ma rue »... Allumer ce qu'il faut
quand il faut !
"Ene karrika pizten dut"... Behar dena piztu,
behar delarik! |
| 12 le Dr. Martin Minvielle, un homme de bien.
Martin Minvielle medikua, gizon
eredugarria. | 24 Travaux.
Obrak. |
| 14 Euskara aintzina.
Euskara aintzina. | 25 La forêt des bébés.
Ninien oihana. |
| 15 Essor Basque 2024, une nouvelle formule !
Essor Basque 2024, formula berria! | 26 Associations.
Elkarteak. |

Responsable Communication:
Charles MASSONDO



COMMUNE DE
SAINT-PALAIS
DONAPALEU
H E R R I A



HORAIRES / ORDUTEGIA

Du Lundi au Vendredi / Astelehenetik ostiralera
de 9h00 à 12h00 / 9:00 etarik 12:00 etara
et de 13h30 à 17h00 / eta 13:30 etarik 17:00 etara

CONTACT / KONTAKTUA

Place Charles-de-Gaulle / Charles-de-Gaulle plaza
64120 Saint-Palais / 64120 Donapaleu
E-mail contact@saint-palais.fr
Tel. 05 59 65 73 06
Fax 05 59 65 73 06

SERVICES / ZERBITZUAK

ÉTAT-CIVIL / EGOERA ZIBILA
etatscivil@saint-palais.fr

SITE INTERNET / WEBGUNEA
siteinfo@saint-palais.fr

POLICE MUNICIPALE / HERRI ZAINITZA
policemunicipale@saint-palais.fr

SERVICE TECHNIQUE / ZERBITZU TEKNIKOAK
servicetechnique@saint-palais.fr

URBANISME / HIRIGINTZA
urbanisme@saint-palais.fr

COMPTABILITÉ / KONTULARITZA
compta@saint-palais.fr

ÉTAT-CIVIL EGOERA ZIBILA

Naissances

PONTÉ Inès 16/05/23
GUICHANDUT Victoire 23/05/23
LAGARDE Mattin 27/08/23
De SOUZA ESPEL Louka 02/09/23
PRÉBENDÉ Luma 27/09/23
THICOÏPE Alba, Jone 07/11/23

GUÉRIN Marie-Antoinette 19/05/23
MERCAPIDE Pierre 23/05/23
GOITIA Olga 01/06/23
SALAVERRIA Maria 22/06/23
LABROUSSA Yves 06/07/23
SANCHEZ Antonia 19/07/23
CHARRITON Gracieuse 26/07/23
URRUSPIL Jean 27/07/23
EGURBIDE Marguerite 10/08/23
THIBAUT Jacqueline 13/08/23
SALISZ Gilles 26/08/23
IRIBARREN Marie-Jeanne 16/09/23
FOURCADE François 22/09/23

Décès

ALESSANDRIA Jean-Pierre 02/10/2023
CANDAU Solange, Adèle 03/10/2023
LECHEREN Roger, Edouard 07/10/2023
BISCAY Catherine 03/11/2023
POCHELU Joseph, Antoine 04/11/2023
UNHASSOBISCAY Jeanne 12/11/2023
COLONNA Pierre 14/11/2023
GONCALVES José 14/11/2023
ARRAYET Maurice 22/11/2023





LE MOT DU MAIRE AUZAPEZAREN HITZA

C HÈRES SAINT-PALAISSIENNES, CHERS SAINT-PALAIISIENS,

Les centre-bourgs jouent un rôle important dans le maillage d'un territoire. Dans ces espaces d'échanges, des liens se tissent, des regards se croisent, des relations se nouent. C'est d'autant plus vrai chez nous, où Saint-Palais est la centralité du territoire d'Amikuze. C'est aussi pour cela que notre cité est lauréate du dispositif national Petite Ville de Demain.

Une étude urbanistique va être ainsi lancée pour imaginer le futur de notre centre-bourg, en y associant des acteurs socio-économiques et des saint-palaisiens. Les résultats de ces ateliers seront ensuite présentés à la population. Ce processus sera complexe. Il est cependant nécessaire pour que chacun réfléchisse et partage ces enjeux d'avenir pour notre cité. La reconquête des centre-bourgs représente en effet, à Saint-Palais comme ailleurs, un défi majeur des politiques d'aménagement du territoire. Cette revitalisation devra être animée et coordonnée à long terme.

Des logements vides sont à rénover, des nouveaux commerces à accueillir, d'autres devront être protégés et développés, des nouveaux services seront à créer.

Quelle place pour la voiture ? Comment circuler ? Où se garer ? Et comment favoriser les mobilités douces, développer la marche et le vélo ? Comment convaincre les propriétaires de rénover leurs appartements et leurs maisons pour offrir des logements décents ? Comment faire vivre nos commerces ? Quelles places pour les associations dans l'animation de la ville ?

Toutes ces questions se posent. Leurs réponses passeront par des idées partagées, une réflexion commune, de l'écoute entre tous, l'appui sur des expériences extérieures. Cette étape est incontournable.

Cette réflexion sur l'avenir ne doit cependant pas occulter le présent. Dès maintenant, le bien vivre ensemble doit continuer à nous guider. Il ne s'agit pas d'une simple formule, mais d'un

D ONAPALEUTAR AGURGARRIAK,

Herri-barneek rol garrantzitsua jokatzeko dute lurraldeen saretzeaz. Trukaketa espazio horietan, loturak sortzen dira, begiradak gurutzatzen, harremanak lotzen. Are gehiago gure kasuan, Donapaleu Amikuze lurraldearen erdigunea baita. Hartako, besteak beste, gure herria Biharko Hiri Txikiak dispositiboan sartu da.

Hasteko, herri-barnearen etorkizuna irudikatzeko hirigintza-ikerketak bat abiatuko da, eragile sozio-ekonomikoekin eta donapaleutarrekin batera. Tailer horien emaitzak herritarrei aurkeztuko zaizkie ondotik. Prozesua konplexua izanen da. Horregatik, beharrezkoa izanen da bakoitzak gure herriaren etorkizuneko erronkei buruz gogoetatzea eta partekatzea. Herri-barneak berdinamizatzea, Donapaleun eta beste lekuetan, lurraldearen antolaketa politiken erronka nagusia da. Biziberritze hori epe luzera antolatu beharko da.

Etxebizitza hutsak berritu behar dira, saltegi berriak ireki behar dira, beste batzuk babestu eta garatu behar dira, zerbitzu berriak sortu behar dira.

Nolako tokia emanen diogu autoari? Nola ibiliko dira? Non aparkatuko? Nola lehenetsi mugikortasun leunak, nola garatu oinez edo bizikletaz mugitzea? Nola konbentzitu jabeak apartamentuak eta etxeak berritu eta bizileku duinak proposa ditzaten? Nola biziari gure saltegiak? Zein toki eman elkarteei herriko animazioetan?

Galdera anitz ditugu buruan. Erantzunak, partekaturiko ideietan, gogoeta amankomunetan, elgar entzutean, kanpoko esperientziak ezagutzean atzemanen ditugu. Urrats hori ezinbestekoa da.

Etorkizunari buruzko gogoeta horrek ez du oraina estali behar. Oraindanik elkarbizitzak gidatu behar gaitu. Ez da formula



vrai état d'esprit à partager, avec la volonté de toujours mettre en accord nos actes et nos idées. C'est le sens de notre action municipale. L'intérêt général n'est pas l'addition d'intérêts particuliers, qu'ils soient financiers ou partisans. Il est l'addition des toutes les volontés au service de la commune, pour le bien-être de ses habitants.

C'est ainsi que dans un monde tourmenté, Saint-Palais pourra rester vivante, accueillante, respectueuse.

Votre ville vous appartient.

Au terme d'une année animée et réussie, je m'associe à tous les conseillers municipaux pour vous souhaiter une très bonne année 2024, pleine de bonheur, riche de rencontres avec toujours ce sentiment de bien-être en habitant Saint-Palais.

Charles Massondo.

sinplea, baina izateko manera bat da, partekatu behar duguna, gure ideiek eta ekintzek bat egin dezaten. Herriko etxeko talde honen borondatea da. Interes orokorra, herriaren alde, herritarren ongizatearen alde.

Mundu nahasi honetan, Donapaleuk bizia, abegitsua eta errespetutsua izaten segituko du.


Herria zuena da.

Urte animatu eta arrakastatsu honen bukaeran, herriko kontseilari guziekin batera, 2024 urte berri on bat opa dizuegu, urte zorionsua eta aberatsa izan dadila, Donapaleun biziz ongizate sentimendu batekin.

Charles Massondo.

Les propriétaires seront invités à déposer leur dossier de demandes de subventions AVANT le démarrage des travaux.

BIZILEKUAK HOBETZEKO ETA HIRIA BERRITZEKO PLANA DONAPALEUN



Bizilekuak hobetzeko programa bat da, hiriaren berritzeari buruzko atal bat ere baduena.

ZEHAZKI, HELBURU HAUEK IZANEN DITU:

- Biztanleen bizi-baldintzak hobetu (etxebizitza ez-duinak, energia-prekarietatea, zahartzaro/elbarritasun egoeretara egokitzapenak),
- Etxebizitza zaharrak berriz alokairuen merkatuan ezarri,
- Hiri-barnearen erakargarritasuna hobetu,
- Ondarea balorizatu, eraikuntzak erabilera duin baterako egokitzuz eta proiektuak ikusgarri eginez (barneko lanez gain, fatxadak berritu).

NORENTZAT IZANEN DA?

- Bertan bizi diren jabeentzat (diru-sartzeen baldintzen arabera),
- Alokaten duten jabeak (hitzarmen baldintzen arabera),
- Jabekideak.

Bestalde, ekintza hori abiatuko delarik, Donapaleuko Bizilekuaren Etxean aholku pertsonalizatuak izaten ahalko dira urririk.

ZEIN OBRA LAGUNTZEN AHALKO DIRA DIRUZ?

- Bizilekuaren andeatzearen kontrako lanak,
- Energia-prekarietatearen kontrako eta errendimendu termikoa hobetzeko lanak, berotze sistemak, isolatzea, haizeztatze sistema,
- Autonomia galtzearen kasuan egin beharreko lanak, etxean bizitzen segitzeko, garbigela eta komunak, irisgarritasuna,
- Alokairu mugatuan alokatu ahal izateko obrak,
- Bizilekuaren sarbidea eraikitze lanak (komertzioetik banatua), edo hutsik ez egoteko beharrezko lanak, laguntza espezifikoak.

Jabeek diru-laguntza galdea obrak hasi AITZIN aurkeztu behar dute.

"Biharko Hiri Txikiak" programaren baitan, Donapaleuko herriko etxeak "bizilekuak hobetzeko eta hiria berritzeko ekintza programatu bat" abiatu du ANAH bizilekuen agentziarekin eta Euskal Hirigune Elkargoarekin partaidetzan, zure bizilekua berritzen laguntzeko.

ZER DA EKINTZA PROGRAMATU HORI?

Bizilekuak hobetzeko programa bat da, hiriaren berritzeari buruzko atal bat ere baduena. Etxebizitza zaharrak eta andeatuak berritzeko, birkalifikatzeko eta birbanatzeko, hiri-barnearen erakargarritasuna eta irudia hobetzeko.

Programa honek diru-laguntzak ematen ditu (baldintzak betetzen badira) eta bizilekuen hobetzeko lanetan laguntza ekartzen du: finantza-muntaia hoberena atzemateko kontseiluak eta laguntza. Euskal Hirigune Elkargoak, ANAH-k, departamenduak eta Donapaleuko herriak elkarlanean eramanen duten ekintza honekin, bizilekuak (izan hutsak edo erabiliak) hobetzen ahalko dira 5 urteko epean (2024-2029).



LE CENTRE HOSPITALIER DE SAINT-PALAIS POURSUIT SON DÉVELOPPEMENT

Trois millions de français sont victimes de maladie rénale chronique. Pour certains d'entre eux, l'évolution de la maladie justifiera une dialyse (rein artificiel) ou une greffe du rein. Plus de 82.000 personnes sont traitées pour insuffisance rénale chronique terminale, et la moitié de ces insuffisances rénales sévères sont dues au diabète et à l'hypertension. Chez ces patients, 47.000 personnes environ sont dialysées, moins de dix pour cent d'entre elles le sont à domicile. Les autres doivent bénéficier d'un centre de dialyse spécialisée.

La dialyse est le nettoyage de sang par des voies artificielles. Ce procédé nécessite un environnement technique et médical de haute qualité. Au Pays Basque, cette maladie est également fréquente, et les malades doivent se faire dialyser dans les établissements privés ou publics essentiellement localisés sur la côte basque. Pour les malades éloignés de ces centres, déjà fragilisés par cette pathologie, le recours vers ces centres est fatigant, long et coûteux.


Pour ces raisons, dans le cadre du projet médical partagé entre le Centre Hospitalier de la Côte Basque (Bayonne) et le Centre Hospitalier de Saint-Palais, ce dernier met en place une unité de dialyse de douze places. Ce projet porte sur la construction d'un nouveau bâtiment sur une parcelle communale à proximité immédiate de l'hôpital. Ce terrain permettra d'accueillir ce bâtiment, ainsi qu'une zone de parking pour les patients et le personnel. La commune de Saint-Palais met à la disposition de l'hôpital cette surface dans le cadre d'un bail emphytéotique

**Le Centre Hospitalier
de Saint-Palais installe
une unité de dialyse de
douze places.**

administratif de 40 ans, au prix d'un euro symbolique par an (Conseil municipal du 16 août 2023). Le coût d'investissement porté par le Centre Hospitalier de Saint-Palais est supérieur à un million d'euros. Des nouveaux postes d'infirmiers seront créés, participant ainsi au développement socio-économique de Saint-Palais. L'activité du centre devrait démarrer dans le dernier trimestre 2024.

Dans un premier temps, quatorze patients dialysés trois fois par semaine de cette offre de proximité. Ce besoin augmentera à l'avenir. Le projet consiste à créer 6 lits d'auto-dialyse (UAD) et 6 lits d'Unité de Dialyse Médicalisée (UDM). L'unité de dialyse médicalisée est destinée à des patients nécessitant une surveillance rapprochée. L'unité d'auto-dialyse prend en charge des patients formés, en mesure d'assurer eux-mêmes une grande partie des gestes nécessaires à leur traitement. Elle est destinée aux patients autonomes et ne présentant pas d'autres pathologies connexes.

Par ce partenariat, notre municipalité affirme sa volonté d'être un partenaire actif du Centre Hospitalier de Saint-Palais, et de son développement. Il convient de répondre aux besoins de notre population, mais aussi de celle de l'ensemble du Pays Basque intérieur. La possible création du SMUR (antenne du SAMU), adossé aux urgences, pour laquelle de très nombreux élus se sont mobilisés, répond de la même logique.



DONAPALEUKO OSPITALEAK GARATZEN SEGITZEN DU

Frantziar Estatuan, hiru milioi pertsonen pairatzen dute giltzurruneko eritasun kronikoa. Horietako batzuen kasuan, eritasunaren bilakaerak dialisiara (giltzurrun artifiziala) edo giltzurrun transplante batera eramanen ditu. 82 000 pertsona baino gehiago tratatzen dira giltzurrun eskastasun terminalagatik eta eskastasun larri horien erdia diabetesari eta hipertentsioari lotuak dira. Paziente horien kasuan 47 000 pertsonen dute dialisia, baina % 10 dira soilik etxean dutenak.

Besteek dialisia zentro berezitu batera joan behar dute.

Dialisia odola bide artifizialeetatik garbitzea da. Prozedura horrek goi-mailako medikuntza eta teknika behar ditu. Euskal Herrian, eritasun hori presente bada ere, pazienteek kostaldeko zentro pribatu edo publikoetara joan behar dute dialisia egitera. Zentroetatik urrun bizi direnentzat, patologiaren ondorioz ahultzeaz gain, zentro horietara joan behar izatea akigarria, luzea eta kario da.

Arrazoin horiengatik, Baionako eta Donapaleuko ospitaleen arteko medikuntza-proiektuaren baitan, Donapaleun dialisia egiteko hamabi tokiko unitate bat irekiko da. Proiektua ospitaletik hurbil den herriko partzela batean bastimendu berri bat eraikitzea da. Eremu horretan, bastimenduaz gain, aparkaleku bat ezartzen ahalko da paziente eta langileentzat. Donapaleuko herriko etxeak lur hori ospitalearen esku ezarriko du, urtean euro sinboliko bat kosta duen 40 urteko kontratu enfiteutiko batekin (2023ko agorrilaren 16ko herriko kontseilua). Donapaleuko ospitaleak egin behar duen inbestizamendua

**Arrazoin horiengatik,
Baionako eta Donapaleuko
ospitaleen arteko medikuntza-
proiektuaren baitan,
Donapaleun dialisia egiteko
hamabi tokiko unitate bat
irekiko da.**

milioi bat eurotik gorakoak da. Erizain postu berriak sortuko dira, Donapaleuren garapen sozio-ekonomikoan parte hartuz. Zentroaren jardura 2024ko azken hiruhilekoan abiatzea aitzin ikusten da.

Hastapen batean, hamalau pazienteri egingen zaie dialisia, hiru aldiz astean, hurbileko eskaintza honetan. Behar horiek emendatuko dira gerora begira. Proiektua auto-dialisirako 6 ohe eta medikalizatutako dialisirako 6 ohe irekitzea da. Medikalizatutako dialisia hurbileko zaintza behar duten pazienteei zuzendua da. Auto-dialisiaren kasuan, formatuak diren pazienteek erabiltzen ahal dute, beren tratamendurako beharrezkoak diren jestuak egiteko gai direnek. Paziente autonomoei eta beste patologiarik ez dutenei zuzendua da.

Partaidetza honek erakusten du herriko etxeak borondate handia duela Donapaleuko ospitalearekin aktiboki lan egiteko eta honen garatzeko. Gure herritarren eta orokorki barnekaldeko herritarren beharrei erantzun behar diegu. Hautetsi anitz mobilizatu dituen urgentsia eta erreanimazio zerbitzu mugikor (SMUR) baten sorrerak ere, urgentsiekin batera, logika horri erantzuten dio.

DENAK HERRITAR, DENAK SOKORRITZAILE

TOUS CITOYENS,
TOUS SAUVETEURS

Bihotzekoek urtean 50.000 bat-bateko heriotza eragiten dituzte Frantzian. Hilabete baten ondotik, biziraute-tasa %3 baino apalagoa da. Sokorri-unitateei (SAMU eta suhiltzaileak) segidan deitzeak, denen esku diren erreanimazio maniobra simple batzuek eta desfibrilazio goiztiarrak biziraute-tasa hori %30era emenda lezakete, herri eskandinaviarretan eta Estatu Batuetan den bezala. Bihotzekoen %70 lekukoen aitzinean gertatzen badira ere, %20-ak soilik egiten ditu erreanimazio maniobrak. Lehen minutuak funtsezkoak dira, galdutako minutu bakoitzak biziraute-aukerak %10-ez apaltzen ditu sokorriak arribatu aitzin. Ahal bezain laster kanpoko desfibrilazio automatizatu baten aplikatzea kontseilatua da, izan ere, bentríkulu-fibrilazioa da bat-bateko heriotza horien kausarik ohikoena, batez ere miokardioko infartuaren kasuan. Fibrilazioan den bihotza lastertzen da, ez du odola ongi ponpatzen. Disfuntzio horrek ondorio larriak edo bat-bateko heriotza ekar dezake.

Bihotzak erritmo normal bat berreskura dezan, milaka volteko korrante elektrikoa aplikatzen zaio, xok elektrikoa bat bezala. Xok hori kanpoko desfibriladore automatizatu baten bidez ematen da. Bi elektrodo ezartzen zaizkio biktimari korronteak bihotza zeharka dezan. Desfibriladoreak pazienteen biziraupen-aukerak hobetzen ditu. Frantzian, 3 000 edo 4 000 bizi salba litaizke urtero sokorrien eta desfibriladoreen bidez. Horrez gain, beharrezkoa da urgentziaz SAMUa (15 zenbakia) deitzea, sokorriak aktiba ditzaten eta desfibriladorea erabiltzeko eta erreanimazio maniobrak egiteko kontseiluak jasotzeko.

Edozein pertsona baliatzen dezake desfibriladorea. Tresna piztu eta, audio bidezko jarraibideak errezibitzen dira egin beharreko jesterie buruz.

Donapaleun bost tresna ditugu: herriko etxean, eskola publikoan, Airetikan, elizan eta merkatu estalian. Urte hastapenean, tresna gehiago ezarriko ditugu Bideaken, Frédéric de Saint-Jayme trinketean, pilota plazan eta zaldiketa zentroan. Denek ikusgarritasun eta irisgarritasun handia izanen dute. 2024 urtearen lehen erdian, sentsibilizazio, azalpen eta formakuntza kanpaina bat abiatuko du herriko etxeak. Bilkura publiko irekiak antolatuko dira horretarako. Zatozte nunbrean. Denak herritar, denak sokorritzaile!

Les arrêts cardiaques sont responsables de près de 50 000 morts subites par an en France. Le taux de survie observé à un mois est inférieur à 3%. Un appel immédiat aux unités mobiles de secours (SAMU et pompiers), des manœuvres simples de réanimation à la portée de tous, une défibrillation cardiaque très précoce, devraient pouvoir faire passer ce taux de survie à plus de 30% comme dans les pays scandinaves et aux USA. Si 70% des arrêts cardiaques surviennent devant témoins, moins de 20% de ceux-ci entreprennent des manœuvres de réanimation. Les premières minutes sont essentielles, chaque minute perdue diminuant les chances de survie de près de 10% avant l'arrivée des secours spécialisés. L'application la plus rapide possible d'un choc de défibrillation automatisée externe est recommandée car la fibrillation ventriculaire est la cause la plus fréquente de ces morts subites, souvent dans le cadre d'infarctus du myocarde. Le cœur en fibrillation s'emballe et ne pompe plus le sang efficacement. Ce dysfonctionnement conduit à des séquelles irréversibles ou au décès brutal.

Pour tenter d'imposer à ce cœur de reprendre un rythme normal, il faut lui appliquer un courant électrique instantané de plusieurs milliers de volts sous forme d'un choc électrique. Ce choc est délivré par un défibrillateur automatisé externe (DAE). Deux électrodes placées sur le corps de la victime font passer un courant sur un trajet traversant le cœur. La défibrillation automatisée externe (DAE) améliore la survie des patients victimes d'une mort subite. En France 3 000 à 4 000 vies pourraient être sauvées chaque année grâce à des manœuvres de secourisme et à l'utilisation de ces défibrillateurs automatisés externes (DAE). Dès la prise en charge, il est aussi nécessaire de faire appel en urgence au SAMU (le 15) pour permettre au médecin régulateur d'activer les secours et de donner tous les conseils d'utilisation du DSA et d'initiation des manœuvres de réanimation complémentaires.

Toute personne est autorisée à utiliser un DAE. Une fois l'appareil allumé, des instructions vocales guident l'utilisateur sur la conduite à tenir et les gestes à effectuer. A ce jour, Saint-Palais dispose de cinq appareils installés à la mairie, à l'école publique, à Airetik, à l'église et au marché couvert. En début d'année, de nouveaux appareils seront mis à disposition à Bideak, au trinquet Frédéric de Saint-Jayme, au fronton municipal et au centre équestre. Tous bénéficieront de la meilleure accessibilité et visibilité possible. Dans le premier semestre 2024, une campagne de sensibilisation, d'explications et de formation, organisée par la municipalité sera proposée. Elle se fera sous forme de réunions publiques ouvertes à tous. Venez-y nombreux. Tous citoyens, tous sauveteurs !



DONAPALEUKO OSPITALEKO ESPEZIALITATEAK

Donapaleuko ospitaleak medikuntza eta kirurgia espezialitateetako kontsulta anitz proposatzen ditu, Baionako ospitalearekin batera.

Taula honetan atzemanen dituzue kontsulta eta kontaktu guziak hitzordua hartzeko, zuzenean edo zuen medikuaren bidez.

LES CONSULTATIONS AU CENTRE HOSPITALIER DE SAINT-PALAIS

Le Centre Hospitalier de Saint-Palais propose de nombreuses consultations de spécialités médicales et chirurgicales, en lien avec le Centre Hospitalier de la Côte Basque (Bayonne).

Vous trouverez dans ce tableau toutes ces consultations et les contacts téléphoniques pour prendre rendez vous, soit directement, soit par le biais de votre médecin traitant.

CONSULTATIONS CENTRE HOSPITALIER DE SAINT-PALAIS			
Jours de consultation	Horaires	Doctolib	Prise de RDV
CARDIOLOGIE			
Tous les jours sauf mardi	9h/17h	non	05 59 65 45 02
CHIRURGIE ORTHOPÉDIQUE			
Tous les jours	8h30/16h	non	05 59 65 45 01 05 59 65 45 38
CHIRURGIE VISCÉRALE			
Lundi et jeudi	9h30/16h	oui	05 59 65 45 01
CHIRURGIE VASCULAIRE			
Mercredi	14h/16H	non	05 59 65 45 01
ENDOCRINOLOGIE			
mardi et jeudi	9h/16h	non	05 59 65 45 22
GASTROENTÉROLOGIE			
Tous les jours sauf mercredi	11h/17h	non	05 59 65 45 22
GYNÉCOLOGIE			
lundi au vendredi	9H/17H	non	05 59 65 45 54
INFECTIOLOGIE			
Lundi	10h/13h	non	05 59 65 45 22
MÉDECINE INTERNE			
mercredi	9h30 /15h30	non	05 59 65 45 22
NÉPHROLOGIE			
Mardi et vendredi	10h/15h30	oui	05 59 65 45 22
NEUROCHIRURGIE			
Mardi et vendredi	9h/16h30	non	05 59 65 45 01
NEUROLOGIE			
Début activité décembre 2023			05 59 65 45 22
ONCO-GÉRIATRIE			
Jeudi vendredi	10h à 12h	non	05 59 44 41 81
ONCOLOGIE			
Vendredi	10h40/15h30	non	05 59 65 45 53
OPHTALMOLOGIE			
Tous les jours	14h/18h30	non	05 59 65 46 25
ORL			
Tous les jours sauf le jeudi	14h/18h30	non	05 59 65 45 35
PÉDIATRIE			
lundi au vendredi	9H/17H	non	05 59 65 45 54
PLAIES ET CICATRISATIONS			
Mardi	9h/16h30	non	05 59 65 45 53
PNEUMOLOGIE			
Lundi mardi et vendredi	10h à 17h	non	05 59 65 45 22
PSYCHIATRIE			
Mardi	14h 18h	non	05 59 65 45 35
RHUMATOLOGIE			
Mardi et Mercredi	9h40 à 15h20	non	05 59 65 45 22
SAGE-FEMME			
lundi au vendredi	9H/17H	non	05 59 65 45 54
UROLOGIE			
mardi et vendredi	9H30/16H	non	05 59 65 45 01

LE DR MARTIN MINVIELLE, UN HOMME DE BIEN

Dans chacun des bulletins municipaux à venir, nous présenterons la vie et l'œuvre d'un de nos compatriotes, ancien ou contemporain. Les plus jeunes d'entre nous ne connaissent peut-être pas ceux qui ont façonné notre histoire locale. A travers ces lignes, nous essaierons de leur rappeler. Nul doute que beaucoup d'entre nous auront plaisir à retrouver ces biographies. Nous commençons dans ce numéro par le Dr Martin Minvielle, un des fondateurs de la première clinique de Saint-Palais.

Martin Minvielle naît à Labets-Biscay le 6 août 1889. Il y décède en 1948 et repose depuis dans le caveau familial, au pied de cette belle église récemment rénovée. Ses parents, Arnaud Minvielle et sa mère Marie, née Lartigau, font partie de la bourgeoisie de campagne de l'époque. Martin perd son père très tôt à New York. Arnaud y est en voyages, après de longs séjours à Cuba où il gère ses biens. Il s'est en effet émigré aux Amériques où il fait affaire... Sa famille est restée à Labets. Cette mort d'Arnaud Minvielle reste assez mystérieuse. La légende court encore à Labets qu'il aurait été assassiné, assassinat en rapport avec ses activités. Il s'agirait en fait sûrement d'un décès par intoxication à l'oxyde de carbone dans une chambre d'hôtel newyorkaise. Les courriers du consulat de France destinées au Maire de Saint-Palais de l'époque privilégient cette fin tragique.

Martin passe son enfance à Labets avant de suivre son enseignement secondaire au petit séminaire de Larressore. Après son bac, il commence ses études à la faculté de médecine de Paris. Mais la guerre interrompt son cursus universitaire, il est mobilisé, traverse la grande guerre avec un séjour au Maroc. Il reprend ses études médicales à l'issue de la guerre et passe enfin sa thèse en 1924 avec pour sujet « l'épithélioma primitif de l'intestin grêle ». Il est devenu le Docteur Minvielle et ce titre l'accompagnera toute sa vie, à Paris et au Pays Basque. Ce sont en effet ses passions pour la médecine, pour les autres et pour son Pays Basque qui rythmeront cette vie.

Le Dr Minvielle ouvre son premier cabinet médical à Paris, dans le XVI^{ème} arrondissement. Mais l'appel du Pays Basque est trop fort et il revient à Labets vers les années 1930, où il rénove sa maison familiale Goitia, en voulant y imiter le modèle d'Arnaga. Le peintre René Moritz, connu à la guerre, décore Goitia d'une immense fresque reprenant l'histoire de El Cano, célèbre explorateur et marin basque qui réalisa la première circumnavigation du globe de 1519 à 1522, lors de l'expédition commandée à l'origine par Fernand de Magellan.

Il ouvre alors un cabinet à Saint-Palais, en face du fronton, et utilise un des premiers appareils de radiologie de l'époque. Avec le Dr Raoul Labourdette, il participe à la mise en place du bloc opératoire de la clinique des sœurs franciscaines. La tradition de la chirurgie est lancée à Saint-Palais, elle se poursuivra avec la clinique Sokorri et aujourd'hui avec le Centre hospitalier. Le Dr Minvielle devient le consultant local, parcourt le canton de village en village, de porte

en porte. Il développe les actions de santé publique, lance des campagnes de vaccination, prône l'allaitement maternel contre le lait de vache.

Et en même temps, à Goitia, il plante des arbres fruitiers et veut promouvoir les vieux pommiers basques. Goitia est transformé en ferme pilote avec son verger et ses poules pondeuses. Marcellin Clédes, fondateur du journal de Saint-Palais, lors d'une visite, qualifie l'endroit de paradis terrestre ! Avec d'autres, Martin crée un syndicat des horticulteurs pour unifier les pratiques. Il incite les jeunes de Labets à suivre avec lui les cours par correspondance de l'école d'agriculture d'Angers. Son épouse Renée, l'aide dans ses tâches et crée un atelier de reliure pour les livres.

Adulte, Martin réapprend les danses basques de son enfance. Le basque est sa langue maternelle. Il se la réapproprie et en devient un ardent défenseur, sans l'opposer au français. Il affirme déjà que la langue basque gagnerait à être enseignée à l'école. Son traité de puériculture, écrit en langue basque (mais dont le titre est cependant en français...pourquoi ?) s'adresse aux jeunes mères de la campagne. Son autre ouvrage, l'alcoolisme chez les basques, va dans la même volonté de santé publique. Impossible de ne pas citer la dernière et merveilleuse phrase de cet ouvrage : « Tachons de prêcher ensemble cette modération si nous ne voulons pas voir le vin et l'alcool faire de notre beau pays le lit de la tuberculose et celui de l'immoralité ».

Ses amitiés sont nombreuses : les Inchauspé de Saint Jean Pied de Port, le Dr Arnaud Hourcade de Saint-Palais, Jean Errecart qui a prolongé ses actions. Ces deux derniers diront un vibrant hommage devant son cercueil à sa mort.

Simple, discret, humble, attaché à son pays et à sa culture, le Dr Martin Minvielle était un homme de bien. Une rue de Saint-Palais porte enfin aujourd'hui son nom. Il le mérite.



MARTIN MINVIELLE MEDIKUA, GIZON EREDUGARRIA


Oraindik aitzina, herriko aldizkarian gure herritar baten bizia eta obra aurkeztuko dizuegu. Gure gazteek beharbada ez dituzte ezagutzen gure historiaren parte izan diren pertsona horiek. Lerro hauen bidez, herritar horiek oroituko ditugu. Gutariko anitzek plazerez irakurriko ditugu naski biografia horiek. Ale honetan, Martin Minvielle ezagutuko dugu, Donapaleuko lehen klinikaren sortzaileetako bat.

Martin Minvielle Labetze-Bizkain sortu zen 1889ko agorrilaren 6an. Bertan zendu zen 1948an eta familiako hilerrian datza geroztik, duela guti berrituriko eliza ederraren oinean. Bere burasoak, Arnaud Minvielle eta Marie, Lartigau sortua, baserrialdeko garaiko burgesiako kide ziren. Martinek aita gazterik galdu zuen, New Yorken. Arnaud bidaian zen, Kuban, bere jabetzak kudeatzen egonaldi luzeak egin ondotik. Amerikara emigratu baitzuen negozioak egiteko. Familia Labetzen egon zen. Arnaud Minviellen heriotza aski misteriozkoa da. Labetzen kondatzen da erahila izan zela, bere aktibitateei loturiko hilketa bat omen. Iduri luke New Yorkeko hoteleko ganberan karbono oxidoz intoxikatua izan zela. Frantziako kontsulatutik Donapaleuko auzapezari idatziriko gutunek heriotza tragiko hori deskribatzen dute.

Martinek Labetzen pasa zuen bere haurtzaroa, lizeora Larresoroko seminaria joan zen arte. Baxoa eskuraturik, Pariseko medikuntza fakultatean sartu zen, baina gerrak bere unibertsitate karrera gelditu zuen, mobilizatua izan baitzen Marokon. Gerraren bukaeran, ikasketak berriz hartu zituen eta 1924an aurkeztu zuen tesia, "heste meharreko epitelioma primitiboa" gaiari buruz. Minvielle doktorea bilakatu zen eta titulu hori bizi guzian atxiki zuen, Parisen eta Euskal Herrian. Bizi osoan ukan zituen bi pasioak medikuntza eta Euskal Herria izan ziren.

Minvielle doktoreak Parisen ireki zuen bere lehen kontsultategia, XVI. arrondizamenduan. Baina herriaren deia azkarregia zen eta 1930 inguruan sorterrira itzuli zen eta familiako Goitia etxea berritu zuen, Arnagaren estiloa imitatuz. Gerra garaian ezagutu zuen René Moritz margolariak mural handi bat egin zuen Goitia etxean, Elkanoren historiari buruz. Elkano euskal esploratzaile eta itsas gizon ezaguna da, 1519-1522 urteetan lehena izan zen munduari itzuli osoa ematen, Fernando Magallaesek zuzendurik.

Minvielle kontsultategi bat ireki zuen Donapaleun, pilota plazaren parean. Garaiko lehen erradiologia-makina erabiltzen zuen. Raoul Labourdette doktorearekin batera, serora frantziskotarren klinikako ebakuntza gela sortu zuen. Kirurgiaren



tradizioa abiatu zen Donapaleun, ondotik Sokorri klinikarekin eta gaur egun ospitalearekin segitzen dena. Minvielle tokiko mediku aholkularia izan zen, herriz herri ibiltzen zen, etxez etxe. Osasun publikoko ekintzak antolatzen zituen, txertaketa kanpainak garatu, amaren esne ematea lehenesten zuen haurrentzat, behi esnearen ordez.

Denbora berean, fruitu arbolak landatu zituen Goitian eta euskal sagarrondo zaharrak sustatu nahi zituen. Goitia etxaldea aitzindari bilakatu zen baratze eta oilo erruleekin. Marcellin Clédes Donapaleuko egunkariaren sortzaileak bisita baten ondotik erran zuen etxalde hori paradisua zela! Kideekin batera, Martinek baratzezainen sindikatua sortu zuen, praktikak bateratzeko asmoz. Labetzeko gazteak motibatu zituen berekin batera Angers-eko laborantza eskolako kurtsoak segi zitzaten distantzian. Renée bere emazteak ere berekin lan egiten zuen eta liburuen estalkiak egiteko tailer bat sortu zuen.

Helduaroan, Martinek tipitako euskal dantzak berrikasi zituen. Euskara ama-hizkuntza zuen. Berriz bereganatu eta kartsuki defendatu zuen. Garaian jadanik erraten zuen euskara eskolan erakatsi behar litzatekeela. Haurtzaintzari buruz euskaraz idatzitako bere liburua (izenburua frantsesez bazuen ere) baserrialdeko ama gazteei zuzentzen zitzairen. Bere beste liburua ere, alkoholismoa euskaldunen artean, osasun publikoaren xedeari lotua zen. Nola ez aipatu liburu horretako azken erranaldia: "Neurritzko kontsumoa predikatu dezagun, ez badugu nahi arnoak eta alkoholak gure herria tuberkulosiaren eta moralitate ezaren ohea bilaka dezan".

Bere lagun ugarien artean: Donibane Garaziko Inchauspe familia, Donapaleuko Arnaud Hourcade medikua, Jean Errecart. Azken biek omenaldi ederra egin zioten zendu zelarik.

Sinplea, diskretua, xumea, herriari eta kulturari atxikia, Martin Minvielle gizon eredugarria izan zen. Gaur egun, Donapaleuko karrika batek bere izena du. Ongi merezia.

Horrez gain, egunerokoan euskararen alde lanean ari diren eragileen dinamika agerian ezartzen du.

EUSKARA AINTZINA

Des actions en faveur de la langue basque.

EUSKARA AINTZINA

Bi urte guziz, larrazkenean, Euskal Hirigune Elkargoak Euskararen Urtarora gertakaria antolatzen du lurralde osoan animazioak proposatuz. Euskararen Urtaroko egitaraua herriek, eragile pribatuek eta elkarteek elkarrekin osatzen dute. Xedea, euskarazko hitzorduak antolatzea da (ateraldiak, tailerrak, formakuntzak, eztabaidak, etab.) euskararen hedapena eta erabilera sustatzeko. Horrez gain, egunerokoan euskararen alde lanean ari diren eragileen dinamika agerian ezartzen du.

Aurtengo gertakari batzu : Alabena konpainia, herriko etxearen eskutik. Flipfluf ikusgarria eskaini zieten eskoletako, haurtzaindegiko eta Goxama, lehen haurtzaroko bitartekaritza-guneko haurrei. Kitzikazank konpainiak antolaturik, EZ DOK ERO antzerkia. Amikuzeko Ikastolak Eleka konpainiaren IKI MIHI KLIK ikusgarria antolatu zuen, publikoa Euskal Herriko eta munduko zazpi ipuinetan murgilduz. Zabalik elkarteak idazle gazteen topaketa bat antolatu zuen, euskal idazleen liburu aurkezpenekin. Amikuzen izan ditugun hitzordu guzi horiek euskararen aldeko oldar bat erakusten dute.

Udaberrian, bestalde, KORRIKA itzuliko da eta Euskal Herria zeharkatuko du, 1980ko lehen edizioan Oñatitik Bilbora egin zuen bezala. Geroztik, 22 korrika ospatu dira 43 urtez. Euskararen aldeko gertakaririk garrantzitsuenetakoa da. AEK-k antolatzen du bi helbururekin:

- euskal herritarrak euskararen alde mobilizatzea
- helduen euskalduntzea garatzeko beharrezko dirua biltzea

Lasterketak Euskal Herriko 7 probintziak zeharkatzen ditu 11 egunez eta 10 gaez, 2000 km gelditu gabe.

Beraz, USSP Atletismoaren 30. urtebetetzerako entrenatu ondotik, segi ezazue eta zatozte gure hizkuntza sostengatzera, martxoaren 15ean, ostiralarakin. Ttipi-ttapa, ttipi-ttapa, KORRIKA!

Tous les deux ans, à l'automne, Euskararen Urtarora, la saison de la langue basque, crée l'évènement avec de nombreuses animations organisées sur le territoire de la Communauté Pays Basque. Euskararen Urtarora offre une programmation co-construite par les communes et les acteurs privés et associatifs. L'objectif d'Euskararen Urtarora est d'organiser des rendez-vous bascophones (sorties, ateliers, formations, débats, etc.) afin de promouvoir la diffusion et la pratique de l'euskara dans la vie de tous les jours. Elle met en avant la dynamique des acteurs qui œuvrent en sa faveur au quotidien.

Cette année plusieurs événements ont été organisés : La mairie a invité la compagnie Alabena. Elle a offert le spectacle Flipfluf aux enfants des écoles, de la crèche et du RPE (Relais Petite Enfance) Goxama. La compagnie Kitzikazank a fait venir la pièce de théâtre EZ DOK ERO. Amikuzeko Ikastola a accueilli la compagnie Eleka, son spectacle IKI MIHI KLIK a plongé le public dans l'univers de sept contes inspirés du Pays Basque et du monde. Zabalik a organisé un rassemblement de jeunes écrivains avec présentation de livres d'auteurs basques. Ces nombreux événements en Amikuze témoignent d'un élan culturel autour de l'euskara.

Au printemps la KORRIKA fera son retour, cette course relais qui traverse le Pays-Basque d'Oñati à Bilbo en 1980 lors de sa première édition. Depuis 22 éditions se sont déroulées en 43 ans. La Korrika est devenue la manifestation populaire la plus importante en faveur de l'Euskara. Elle est organisée par AEK et a deux objectifs :

- étendre et renforcer la mobilisation des habitants du Pays Basque en faveur de la langue basque
- collecter les fonds nécessaires au développement des centres d'apprentissage de la langue aux adultes.

Cette course traverse les 7 provinces du Pays-Basque durant 11 jours et 10 nuits, sans interruption soit plus de 2000 kms. Alors après s'être entraîné pour les 30 ans de l'USSP Athlétisme, ne lâchez rien et venez courir pour soutenir notre langue, le vendredi 15 mars dans notre cité. Ttipi ttapa ttipi ttapa KORRIKA !



**Aurten ere,
Donapaleutik
pasako da.**

**Cette année encore,
Saint-Palais accueille
l'Essor Basque.**

ESSOR BASQUE 2024, UNE NOUVELLE FORMULE !

Cette épreuve cycliste qui réunit l'élite nationale amateur est une rampe de lancement. Julian Alaphilippe et Romain Bardet, entre autres, ont animé cette course par étapes par le passé.

Cette année encore, Saint-Palais accueillera l'Essor Basque. La troisième étape de l'épreuve, le Tour de la Basse-Navarre, partira de notre cité et y arrivera le vendredi 9 février. Un tracé exigeant attend les coureurs, ils grimperont dans l'ordre les cols d'Osquich, de Gamia puis d'Iparlatze.

Des nouveautés pimenteront la course cette année ! Le peloton passera deux fois sur la ligne d'arrivée située au niveau du centre culturel Bideak ! En effet, une boucle par Gibraltar est prévue. Le « coup de cul » de la route de Guéraçague sera l'endroit rêvé pour encourager les coureurs en plein effort dans une pente à fort pourcentage. Les costauds tenteront sans doute d'y décrocher leurs adversaires. Que le meilleur gagne !

ESSOR BASQUE 2024, FORMULA BERRIA!

Txirrindulari amatur onenak biltzen dituen bizikleta lasterketa hau plataforma garrantzitsua da: Julian Alaphilippe eta Romain Bardet, adibidez, norgehiagoka honetatik pasatu ziren.

Aurten ere, Donapaleutik pasako da. Probaren hirugarren etapa, Baxe-Nafarroako itzulia, gure herrian hasi eta bukatuko da otsailaren 9an, ostiralarekin. Ibilbide zorrotza gainditu beharko dute txirrindulariek: Ozkaxeko, Gamiako eta Iparlatzeko lepoak igo beharko baitituzte.

Bestalde, aurtengo edizioak berritasunak ekarriko ditu! Pelotoia bi aldiz pasatuko da Bideak kultur-zentroko helmugatik! Izan ere, itzuli bat egingen dute Xibaltarretik.

Gerazageko igoera toki ezin hobea izanen da txirrindulariak animatzeko. Segur da azkarrenek anitz jokatu dutela bertan aurkariak gainditzeko.

Onenak irabaz dezala!





GIBRALTAR EN FÊTE

Une occasion de rencontres conviviales entre les habitants du quartier Gibraltar.

Pour la deuxième année consécutive, les fêtes du quartier Gibraltar ont eu lieu le dimanche 3 septembre à l'embranchement Joli-Cœur. L'année passée, un groupe de jeunes âgés de 15 à 30 ans s'était mis en tête d'organiser une journée de fête avec deux objectifs : créer une occasion de rencontres conviviales entre les habitants et fédérer un groupe de jeunes, tous issus du quartier Gibraltar. Suite au franc succès de l'édition 2022, encouragé par les habitants du quartier et par la mairie, le groupe de jeunes s'est structuré autour de l'association Xibaltarreko gazteak et a décidé de renouveler l'expérience en 2023.



La journée s'articulait autour d'un méchoui mettant à l'honneur les producteurs du quartier (Landeretxea, Etxerria, Gailloa, Haitzpean...), puis d'un kantaldi avec les groupes Botx et Xiberotarrak. Gaitamik a animé l'apéritif avant le repas et régala les amateurs de mutxiko. Pour ceux qui souhaitaient prolonger la journée, des talos ont été servis en soirée.

Cette deuxième édition des fêtes de Gibraltar fut à nouveau une belle réussite. Les habitants ont répondu présent en nombre au méchoui ; le kantaldi a aussi attiré de nombreuses familles d'Amikuze. A l'année prochaine !

XIBALTARREKO BESTAK

Herritarren artean elgar topatzeko eta Xibaltarreko gazteak elgarrekin antolatzeke.

Bigarren urtez, Xibaltarre auzoko bestak irailaren 3an ospatu ziren, igandearekin, Jolikutegiko bidean. Joan den urtean, 15-30 urte bitarteko gazte talde batek beste egun bat antolatzea erabaki zuen bi xedekin: herritarren artean elgar topatzeko eta Xibaltarreko gazteak elgarrekin antolatzeke. 2022ko edizio arrakastatsuen ondotik, auzotarrek eta herriko etxeak sustengaturik, gazte taldeak Xibaltarreko gazteak elkarte sortu zuen eta erabaki zuen 2023an berriz egun horren antolatzea.

Eguneko hitzordu nagusia zikiroa izan zen, tokiko ekoizleen produktuekin prestatua (Landeretxea, Etxerria, Gailloa, Haitzpean...) eta ondotik kantaldia izan zen Botx eta Xiberotarrak taldeekin. Gaitamik taldeak zikiro aitizineko aperitifa alaitu zuen, mutxiko zaleen gozamenerako. Eguna luzatu nahi zutenentzat, taloak baziren arratsean.

Xibaltarreko besten bigarren edizio honek ere arrakasta ederra bildu zuen. Herritarrek gogotik parte hartu zuten zikiroan eta kantaldiak ere Amikuzeko familia anitz ekarrarazi zituen. Heldu den urtera arte!





DONAPALEUKO GAZTEEN HERRIKO KONTSEILUA

**Gazteak hor
dira, dudarik ez!**

2023ko urte hastapenean bildu zen lehen aldiz Donapaleuko gazteen herriko kontseilua. Xedeak, loturak sortzea, gazteek herriaren funtzionamendua ulertzea, herritartasuna garatzea eta begirada berri eta "gazte" batekin begiratzea herriko proiektuei.

Ikastetxe ezberdinetako 10-15 urte bitarteko (4. urtetik hirugarrenera) hamabi gazteek parte hartzen dute instantzia honetan. Lehen bilkuretan elkar ezagutzeaz gain, gazteek garatu nahi dituzten proiektuak definitu dituzte. Horien bidez, herriko kontseilu baten funtzionatzeko moldea barneratzen dute, tailerretan lan eginez eta bakoitzaren ideiak partekatuz.

2023ko udaberrian kohesio egun bat antolatu zen Bilbalkan eta "Street Eguna" antolatzea erabaki zen: karrikako kultura ardatz duen egun bat, grafiti tailerrak eta skate/BMX/trotineta iniziazioak Punpa aisialdi gunean. Ondoko bilkuretan antolakuntzari loturiko gaiak aipatu dituzte. Gazteek aurrekontu bat finkatu dute, tailerrak animatzeko pertsonak xerkatu dituzte, egunaren alde logistikoa landu dute, ardurak banatu dituzte eta gertakariaren komunikazioa egin dute (afixa, tokiko hedabideak, sare sozialak). Urri hastapenean, gazteek proiektua xeheki aurkeztu zuten herriko kontseiluan. Gertakaria onartu zen eta urriaren 21ean egitekoa zen.

Maluruski, eguna azken momentuan gibelatu behar izan zen eguraldiarengatik, baina motibazioa hor da beti! Ideia berriak pizten dira! Tailer eta animazio gehiagorekin jinen da Street Eguna. Goresmenak Donapaleuko gazteen herriko kontseiluko kideei, beren lana eta dinamikarengatik! Gazteak hor dira, dudarik ez! Proiektuan interesa baldin baduzu, Donapaleun bizi baldin bazara eta 10-15 urte baldin badituzu, izena eman eta kontseiluko kide izan! Donapaleuko gazteen herriko kontseiluak goaitatzen zaitu! Informazio gehiago Donapaleuko herriko etxeko idazkaritzan.



**Les jeunes
assureront la
relève, n'en
doutez pas !**

LE CONSEIL MUNICIPAL DES JEUNES DE SAINT-PALAIS

Réuni pour la première fois au début de l'année 2023, le conseil municipal des jeunes de Saint-Palais a pour objectifs de créer du lien, familiariser les jeunes avec le fonctionnement de leur commune, développer l'esprit de citoyenneté et apporter un regard nouveau et « jeune » sur les projets municipaux à mener. Ainsi, une douzaine de jeunes saint-palaisiens de 10 à 15 ans (du CM1 à la classe de 3^e) et provenant de tous les établissements scolaires de notre bassin de vie œuvre au sein de cette instance.

Les premières réunions ont permis de faire connaissance et de faire émerger les projets que les jeunes souhaitent concrétiser. Elles sont l'occasion d'apprivoiser le fonctionnement d'un conseil municipal par des travaux en ateliers et le partage des idées de chacun. La journée de cohésion, au complexe Bilbalka au printemps 2023, a permis d'entériner l'organisation de « Street Eguna », une journée mettant à l'honneur la culture de la rue avec des animations diverses : atelier graffs et initiation Skate / BMX / Trottinette dans l'aire de loisirs Punpa.

Au cours des réunions suivantes, les questions organisationnelles ont été débattues. Les jeunes ont établi un budget prévisionnel, cherché des intervenants pour les ateliers, peaufiné la journée dans ses aspects logistiques, se répartissant les tâches et travaillant à la communication autour de l'événement (affiche, médias locaux, réseaux). Début octobre, les jeunes ont présenté le projet dans ses moindres détails lors du conseil municipal. L'événement est validé, il devait se dérouler le samedi 21 octobre.

Malheureusement, la journée est reportée à la dernière minute au printemps 2024 pour cause d'intempéries mais la motivation reste intacte ! Déjà de nouvelles idées émergent ! Street Eguna sera enrichi d'ateliers et d'animations supplémentaires, imaginés lors des sessions futures. Félicitations aux membres du conseil municipal des jeunes de Saint-Palais pour leur investissement et leur dynamisme ! La qualité et le sérieux démontrés au cours des réunions augurent du meilleur pour l'avenir de notre cité ! Les jeunes assureront la relève, n'en doutez pas ! Si la démarche vous intéresse, que vous résidez à Saint-Palais et que vous avez entre 10 et 15 ans, faites-vous connaître et venez nous rejoindre ! Le conseil municipal des jeunes de Saint-Palais vous attend ! Renseignements auprès du secrétariat de la mairie de Saint-Palais.

An illustration featuring several hands of different skin tones (orange, peach, and light brown) reaching towards the center. In the center, there is a large orange heart with three yellow stars above it. Smaller orange hearts are scattered around the main composition. The background is a light orange color.

LE CENTRE COMMUNAL D'ACTION SOCIALE (CCAS)

Le CCAS est une structure indépendante qui met en œuvre les solidarités et organise l'aide sociale au profit des habitants.

